



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2011IPLE0012

Eguna: 2011-07-28

Ordua: 19:00-19:50

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	BILDU
- Agin Rezola Laburu	BILDU
- Ione Olatziregi Mendiorotz	BILDU
- Berta Arozena Bergara	BILDU
- Raul Redín Hernández	BILDU
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

Bertaratu ez direnak

- Maite Olatziregi Esparza	BILDU
- Isabel Otero Glorie	BILDU

Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2011ko ekainaren 11 eta 30eko akten onarpena	1	Aprobación de las actas de 11 y 30 de junio de 2011
1/2011 kreditu gehigarriaren onarpena	2	Aprobación del crédito adicional 1/2011
Astigarraga Lantzen, S.A. elkarteari aurrerapena ematea	3	Otorgamiento de anticipo a Astigarraga Lantzen, S.A.
2010eko Kontu Orokorra onartzea	4	Aprobación de la Cuenta General 2010
Futbol zelaiko belar artifizialaren bukaerako likidazioaren onarpena	5	Aprobación de la liquidación final del campo de fútbol de hierba artificial



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Lokalak etxebizitzetan bihurtzeko ordenantzaren testu bateratuaren behin betiko onarpena	6	Aprobación definitiva texto refundido de la ordenanza para la conversión de locales en viviendas
Informazio, galdera-erreguak	7	Información, ruegos y preguntas

Esan-eginak eta erabakiak

1. 2011ko ekainaren 11 eta 30eko akten onarpena

Ekainaren 11ko Osoko Bilkurako akta, ekainaren 30eko ohiz kanpoko Osoko Bilkurako akta eta ekainaren 30eko premiazko Osoko Bilkurako akta aurkeztu dira, eta 3 aktak aho batez onartu dira.

2. 1/2011 kreditu gehigarriaren onarpena

Alkateak uztailaren 27ko Hirigintza Batzordearen irizpena aurkeztu du. Irizpen horretan honako erabaki hauek hartzea proposatu zen:

1. Kreditu aldaketa espedientea, hain zuzen 579.686,19 euroko 1/2011 kreditu gehigarria onartzea, kontu-hartzaileak eginiko txostenaren arabera.
2. Espedientea jendaurrean jartzea.

Eztabaidatu ondoren, irizpena bozkatu eta onartu egin da, aldeko 7 botorekin (5 BILDUK eta 2 EAJ/PNVk) eta HAMAİKABATen kontrako 2 botorekin.

Botoaren azalpenean Bixente Arrizabalaga zinegotziak honela azaldu du kontrako botoa ematearen arrazoia: aurreko legegintzaldian Astigarraga Lantzen SAk Zakurmendegiko lursail baten salmenta behin-behinean esleitu zuen; salmenta

1. Aprobación de las actas de 11 y 30 de junio de 2011

Se someten a aprobación las actas del pleno de fecha 11 de junio, acta del pleno extraordinario de fecha 30 de junio y el acta del pleno de urgencia de fecha 30 de junio, siendo aprobadas las 3 actas por unanimidad.

2. Aprobación del crédito adicional 1/2011

El alcalde presenta el dictamen de la comisión de hacienda de fecha 27 de julio, en el que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

1. Aprobar el expediente de modificación de créditos en su modalidad de crédito adicional 1/2011 de 579.686,19 € conforme al informe emitido por el Interventor.
2. Someter el expediente a información pública.

Tras un debate somete a votación el dictamen siendo aprobado con 7 votos a favor (5 BILDU, 2 EAJ/PNV) Y 2 votos en contra de HAMAİKABAT.

En la explicación de voto el concejal Bixente Arrizabalaga explica que han votado en contra dado que en la legislatura anterior Astigarraga Lantzen SA dejó adjudicada provisionalmente la venta de un terreno en Zakurmendegi,



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

horrek baliabide ugari lortzea ahalbidetuko zion Udalari eta horrela ez zuen Osoko Bilkura honetan planteatzen den aurrerakinaren beharrik izango, baina udalbatza berriak ez du behin-behineko esleipen hura behin-betiko esleipen bihurtu.

que permitiría obtener importantes recursos a la sociedad municipal, y no tendría necesidad del anticipo que se plantea en este pleno, pero la nueva corporación no ha hecho definitiva dicha adjudicación provisional.

3. Astigarraga Lantzen, S.A. elkarteari aurrerakina ematea

Alkateak uztailaren 27ko Hirigintza Batzordearen irizpena aurkeztu du. Irizpen horretan honako erabaki hauek hartzea proposatu zen:

3. Otorgamiento de anticipo a Astigarraga Lantzen, S.A.

El alcalde presenta el dictamen de la comisión de hacienda de fecha 27 de julio, en el que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

Astigarraga Lantzen, S.A. elkarteari 579.686,19 eurotako aurrerakina ematea. Aurrerakin hau gehienez 3 urtetan itzuliko da, eta kontu-hartzaileak eginiko txostenaren arabera gauzatuko da, hau da, hiruhilabeteroko euribor +1, eta likidapenak ekainaren 30 eta abenduaren 30ean egingo dira.

Otorgar a Astigarraga Lanzen, S.A. un anticipo de 579.686,19 euros que se reintegrará al Ayuntamiento en el plazo máximo de 3 años, y que se aplicará conforme al informe del Interventor, euribor trimestral + 1 punto, en liquidaciones que se realizarán el 30 de junio y el 30 de diciembre.

Eztabaidatu ondoren, irizpena bozkatu eta onartu egin da, aldeko 7 botorekin (5 BILDUk eta 2 EAJ/PNVk) eta HAMAİKABATen kontrako 2 botorekin.

Tras un debate somete a votación el dictamen siendo aprobado con 7 votos a favor (5 BILDU, 2 EAJ/PNV) Yy 2 votos en contra de HAMAİKABAT

Bixente Arrizabalaga zinegotziak aurreko puntuan adierazitakoari eutsi dio botoaren azalpena ematerakoan.

El concejal Bixente Arrizabalaga en la explicación de voto se remite a lo manifestado en el punto anterior.

4. 2010eko Kontu Orokorra onartzea

Alkateak uztailaren 27ko Hirigintza Batzordearen irizpena aurkeztu du. Irizpen horretan honako erabaki hau hartzea proposatu zen:

2010eko Kontu Orokorra behin betirako onartzea.

Eztabaidatu ondoren, irizpena bozkatu eta aho batez onartu da.

4. Aprobación de la Cuenta General 2010

El alcalde presenta el dictamen de la comisión de hacienda de fecha 27 de julio, en el que se propone la adopción del siguiente acuerdo:

“Aprobar definitivamente la cuenta general de 2010”

Tras un debate somete a votación el dictamen siendo aprobado por



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

unanimidad.

5. Futbol zelaiko belar artifizialaren bukaerako ziurtagiria onartzea

Alkateak uztailaren 27ko Hirigintza Batzordearen irizpena aurkeztu du. Irizpen horretan honako erabaki hau hartzea proposatu zen:

Lehena.- Eginiko obren bukaerako ziurtagiria ondorengo xehetasunen arabera onartzea:

Esleipenduna: U.T.E. SPORT MANCHA INSTALACIONES DEPORTIVAS, S.L. – CONSTRUCCIONES TECDECO, S.L.U., IFK: U1351342. Lizitazio prezioetik % 12,5eko jaitsiera aurkezten du, eta enpresak bere borondatez egingo dituen hainbat hobekuntza eransten ditu.

5. Aprobación de la certificación final del campo de fútbol de hierba artificial

El alcalde presenta el dictamen de la comisión de hacienda de fecha 27 de julio, en el que se propone la adopción del siguiente acuerdo:

Primero.- Aprobar la certificación final de las obras ejecutadas de acuerdo con el siguiente detalle:

Adjudicatario: U.T.E. SPORT MANCHA INSTALACIONES DEPORTIVAS, S.L. – CONSTRUCCIONES TECDECO, S.L.U., CIF:U1351342, que ofrece una baja del 12,5% sobre el precio de licitación y , además incorpora toda una serie de mejoras que voluntariamente va a realizar la empresa.



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Esleitutako aurrekontua: 655.796,18€	655.796,18€ BEZ barne.	
Obra-bukaerako ziurtagiriaren guztizkoa: 738.325,02€	738.325,02	
Ordainduta dauden ziurtagiriaren kontura kenketak	Kopurua	Ordain data
1.: 131.141,02	131.141,02	2010-12-03
2.: 67.362,80	67.362,80	2010-12-22
3.: 95.129,41	95.129,41	2011-01-28
4.: 237.180,00	237.180,00	2011-03-04
Udaleko arkitekto teknikoaren txostenaren arabera obra ez egiteagatik edo gaizki egiteagatik kenketa: 190.700,00:	190.700,00	
Kontratuaren likidazioaren saldoa: 16.811,79	16.811,79	

Presupuesto de adjudicación: 655.796,18€	655.796,18€ con iva incluido.	
Total certificado final de obra: 738.325,02€	738.325,02	
Deducciones por certificaciones a cuenta ya abonadas	Importe	Fecha de pago
1ª: 131.141,02	131.141,02	3-12-2010
2ª: 67.362,80	67.362,80	22-12-2010
3ª: 95.129,41	95.129,41	28-01-2011
4ª: 237.180,00	237.180,00	04-03-2011
Deducción Obra no ejecutada o deficientemente ejecutada según informe del Arquitecto Técnico Municipal 190.700,00:	190.700,00	
Saldo resultante a cuenta de la liquidación del contrato : 16.811,79	16.811,79	

Bigarrena.- Atera den saldoa eta egiten den fakturaren gastua baimentzea.

Segundo.- Autorizar el gasto correspondiente a dicho saldo resultante y de la correspondiente factura que se emita.

Hirugarrena.- Obraren azpikontratistek jarritako erreklamazioak direla-eta irekitako espediente administratiboaren arabera aipaturiko saldoa ordaintzea.

Tercero.- Abonar el citado saldo en los términos que resulte del expediente administrativo incoado por las reclamaciones previas formuladas por los subcontratistas de la obra.

Laugarrena.- Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

Cuarto.- Notificar el presente acuerdo a los interesados a los efectos oportunos.”



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Alkateak irizpena bozkatzeko eskatu du; bozkatu eta aho batez onartu da.

El alcalde somete a votación el dictamen siendo aprobado por unanimidad.

Osoko Bilkuren aretoan Aldi Baterako Enpresa Elkartearantz (ABEE) lan egin duten azpikontratisten ordezkari batzuk daude; adierazi dutenez, ABEEk zenbait kopuru zor dizkie eta dirua zor diena ABEEa dela (eta ez Udala) onartzen badute ere, beren kexa egin nahi dute; izan ere, Udalari jakinarazi zioten enpresak ez ziela ordaintzen eta lehengo alkateak esan zien ez zituztela enpresaren ordainketak formalizatuko, baina ordainketak gauzatu egin dira. Gainera, obra-zuzendaritzak egindako prezio-aplikazioaren inguruan zalantzak dituztela adierazi dute eta galdetu dute obra-bukaerako ziurtagirian egikaritzapen guztiak sartuta ote dauden.

En el salón de plenos se encuentra una representación de los subcontratistas que han trabajado para la UTE quienes comunican que tienen cantidades que les adeuda la UTE, y reconociendo que quienes les adeuda, no es el Ayuntamiento sino la UTE, quieren manifestar su protesta dado comunicaron al Ayuntamiento que no estaban cobrando de la empresa y el anterior alcalde les manifestó que no formalizarían los pagos a la empresa, pero se han realizado. Manifiestan además las dudas en la aplicación de precios, que ha hecho la dirección de obra, y preguntan si están medidas todas las ejecuciones en la certificación final.

Alkateak erantzun du udalbatza berriak eskatu diola obra-zuzendaritzari obra-bukaerako ziurtagiria ematea, belar artifizialeko futbol-zelaia martxoan ireki baitzen. Ziurtagiria uztailaren 22an iritsi zen eta berehala deitu ziren zegozkion batzordeak Udalak kontratatutako obra-zuzendaritzak emandako obra-bukaerako ziurtagiria onartzeko.

Contesta el alcalde señalando que la nueva Corporación ha requerido a la dirección de obra que emita la certificación final, dado que el campo de fútbol de hierba artificial ya fue abierto al público en marzo; indica que finalmente la certificación ha llegado el día 22 de julio e inmediatamente se ha convocado las comisiones pertinentes para proceder a la aprobación de la certificación final, que ha emitido la dirección de obra contratada por el ayuntamiento.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak esku hartu du eta aurreko legegintzaldian azpikontratistekin bildu zela azaldu du; haiek esan beharrekoa entzun ondoren, obra-bukaerako ziurtagiria ez ziotela kontratistari ordainduko adierazi zuen, eta, aldiz, azpikontratistei ordaintzen ahaleginduko zirela.

Interviene el concejal Bixente Arrizabalaga quien manifiesta que en la anterior legislatura se reunió con los subcontratistas y ante lo manifestado señaló que no procederían al pago de la certificación final al contratista, sino que intentaría abonarla a los subcontratistas.

Azpikontratistek beren kexa berretsi dute, hain zuzen Udalak ez duelako lehenagotik esku hartu; era berean, obra-bukaerako ziurtagiriari, egikaritutako guztizko obrari eta aplikatutako prezioei buruz zalantzak dituztela adierazi dute.

Los subcontratistas reiteran su protesta por no haber intervenido antes el ayuntamiento y manifiestan sus dudas en relación a la certificación final, en lo que respeta a la totalidad de la obra ejecutada y precios aplicados...



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

6. Lokalak etxebizitzetan bihurtzeko ordenantzaren testu bateratuaren behin betiko onarpena

Alkateak honako erabaki hauek hartzea proposatu du:

1. Lokal komertzialak etxebizitzetan bihurtzeko udal ordenantza behin betirako onartzea.
2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera testu bateratua igortzea bere onarpenerako.

Aipatutako erabakiak bozkatu eta aho batez onartu dira.

7. Informazio, galdera-erreguak

Bixente Arrizabalaga zinegotziak honako gai hauetaz galdetu du:

- 1.- Aurreko Udalbatzarekin egiten zen moduan, orain ere emandako dekretuen zerrenda aurkeztuko ote den Osoko Bilkura bakoitzean.

Alkateak baietz erantzun du.

- 2.- Bitarteko idazkari-lanpostuaren hornikuntzarako deialdia egin zen eta enpresa-batzordearen errekurtsoren berri izan du zinegotziak; horri buruz galdetu du.

Idazkariak zenbait errekurtsoren berri eman du eta dagokion ebazpena emango da.

- 3.- Tokiko Gobernu Batzordea ez eratzeari buruzko galdera.

6. Aprobación definitiva texto refundido de la ordenanza para la conversión de locales en viviendas

El alcalde propone la adopción de los siguientes acuerdos:

1. Aprobación definitiva de la Ordenanza municipal para conversión de locales comerciales en viviendas.
2. Remisión para su publicación al Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Sometida a votación los acuerdos precitados son aprobados por

7. Información, ruegos y preguntas

El concejal Bixente Arrizagala pregunta:

- 1.- Si se van a facilitar, en cada pleno, como en la corporación anterior la relación de decretos emitidos.

El alcalde contesta que sí.

- 2.- La convocatoria para la provisión interina de secretario/a se hizo y he tenido conocimiento del recurso del comité de empresa, por lo que pregunta en relación a ello.

Hay recursos que han sido informados por el Secretario y se emitirá la resolución que proceda.

- 3.- Pregunta en relación a que no se ha constituido la Junta de Gobierno Local.



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Alkateak erantzun du batzorde hori ez dela eratu eta oraingoz ez duela eratzeko asmorik.

El Alcalde contesta que no se ha constituido y no tiene intención de constituirla por ahora.

Bitarteko idazkari-lanpostuaren hornikuntza garatzen ari den moduari buruzko galdera.

Cómo se está desarrollando la convocatoria de provisión interina

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2011ko uztailaren 28an

Xabin Olaizola Lasa
Idazkaria